

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 539/2016 Erabakia, irailaren 6koa, onartzen duena Arabako eskualde behartsuetan enplegua sortzeko laguntzetarako 2016ko deialdia

Ikusirik Lanbiden izena emanda dauden enplegu eskatzaile langabetuen gaineko datuak, Arabako Lurralde Historikoak ehuneko 14,5eko langabezia indizearekin amaitu zuen ekaineko hilabetea, eta, tasa horretan, 10.463 gizonezkoak dira (ehuneko 11,9), eta 13.214 emakumezkoak (ehuneko 17,4).

Gure lurraldean larria da langabezia, eta berdin eragiten die udalerrri guztiei, nahiz eta larritua handiagoa den udalerrri batzuetan. Egoera horrek agerian uzten du egoerari aurre egiteko neurriak ezarri beharra dagoela langabezia indize handienak dituzten udalerrientzat.

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan, partida bat onartu zen, 41.321.02.42100.002 zenbakikoa, honako izen honekin: Arabako eskualde baztertuetan enplegua sorrarazten laguntzeko programa berezia.

Enplegu, Merkataritza eta Turismoaren Sustapenaren Zerbitzuak bere egitekoen artean du enplegu eta prestakuntza planak garatzeko lankidetzaz sustatzea.

Arabako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, onartu zituen Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumenen eremuan emango diren dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Oinarri horien onarpenaren ondorioz, eta ahalik eta zabalkunderik gehien ematearren eta publizitatearen, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, aginduzkoa da laguntzetarako deialdia bat egitea, hari egokitu dakizkion Araban eskualde baztertuetan enplegua sorrarazteko ekimenak 2016an.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatu eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKI DUT

Lehen. Onartzea Arabako eskualde baztertuetan enplegua sorrarazteko laguntzetarako 2016 ekitaldirako deialdi publikoa, zeinaren gehieneko zuzkidura 420.579,00 euro baita; deialdia erabaki honen eranskin gisa doa.

Bigarrena. Deialdia honako hauek aintzat harturik arautuko da: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzan lehia araubidean dirulaguntzak emateko aplikagarri diren oinarri orokor arautzaileak (Diputatuen Kontseiluaren 26/2016 Foru Dekretua, martxoaren 15ekoa), baita ebazpen honen eranskinean xedatutakoa ere.

Hirugarrena. Ebazpen honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2016ko aurrekontuko 30.5.02.35.02.462.00.01 gastu partidaren kontura ordainduko dira, eta zenbatekoa 420.579,00 euro izango da.

Laugarrena. Ebazpen horrek administrazio bidea amaitzen du, baina erabakia jakinarazi den egunaren hurrengotik hasi eta hilabete igaro baino lehen aukerako berraztertze errekurtsoa

jar dakioko Diputatuen Kontseiluari, Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearen Legeak 116. artikuluan xedatzen duenaren arabera (30/1992 Legea, azaroaren 26koa). Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako dagokion jurisdikzioaren aurrean, erabakia jakinarazi den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 6a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ERANSKINA

ARABAKO ESKUALDE BAZTERTUETAN ENPLEGUA SORRARAZTEKO LAGUNTZETARAKO DEIALDIA

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea da Arabako udalerriei laguntzea, langabeturik dauden pertsonen enplegarritasuna eta/edo kontratazioa hobetzeko udalerrri horiek onartzen dituzten ekimen eta/edo planetan.

2. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbateko osoa

Ebazpen honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2016ko aurrekontuko 30.5.02.35.02.462.00.01 gastu partidaren kontura ordainduko dira, eta zenbatekoa 420.579,00 euro izango da.

3. artikulua. Onuradunak.

3.1. Laguntza lerro honetako onurak eskuratu ahal izango dituzte Arabako udalerriek, Arabako Lurralde Historikoko batez bestekoa baino langabezia erregistratuko indize handiagoa dutenek, hiriburuak izan ezik. Horri begira, Lanbiden erregistratutako enplegu eskatzaile langabetuen 2016ko ekaineko datuak hartuko dira kontuan, indarrean daudenak.

3.2. Ezin izango dira onuradun izan beren onartze prozesuan edo funtzionamenduan sexuagatik diskriminazioa eragiten duten erakundeak, Eusko Legebiltzarraren emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legeak (4/2005) 24.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Era berean, ezin izango dira lehiatu, dagokien zehapenak ezarritako denboran, sexuagatik diskriminazioa eragiteagatik zigor administratibo edo penala jaso duten erakundeak, ez eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen ondorioz debeku horrekin zigortutakoak ere, Euskadiko Ogasuna antolatzen duten printzipioen Legearen testu bategina 50.5 artikuluan jasotzen duen bezalaxe (1/1997 Legegintzako Dekretu azaroaren 11koak onartu zuen testu bategina, betiere artikulua horri Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren Legearen azken xedapenetako seigarrenak emandako idazkeraren arabera; alegia, 4/2005 Legea otsailaren 18koak).

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

4.1. Diruz lagundu ahalko dira proiektuak abian jartzeko inolako zalantzarik gabe lagungarriak diren gastuak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak, hala nola:

a) Enpresak eta kanpoko entitateak kontratatzea enplegu plana osatzen duten faseak (hautaketa, prestakuntza, kudeaketa, koordinazioa eta/edo ikuskatzea, eta abar) edo hari dagokion aholkularitza tekniko gaizatzeko.

b) Lanbide Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu zerbitzuaren erregistroan izena emanda dauden pertsonak kontratatzea.

c) Pertsona langabetu kontratatuen gizarte segurantzako kotizazioen eta aseguruen gastuak.

d) Langileak hautatzeko deialdiari dagokion publizitatea.

Zilegi izango da onartzea gastu orokorrak, gainerako gastu onartuen ehuneko 10 baino handiagoak ez badira, Diputatuen Kontseiluaren 26/2016 Foru Dekretuaren 8.2 paragrafoan zehazten den gisan (26/2016 Foru Dekretua, martxoaren 15ekoa, dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrak onartzen dituena).

Enplegurako deialdiak Lanbiden eskaini beharko dira, nahiz eta beste bide batzuetatik ere eskaini. Beste bide batzuetatik ere eskaintzen badira, deialdian sartu beharko dira Lanbideren eta Arabako Foru Aldundiaren logoak.

4.2. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratzea baimentzen da, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 29. artikuluan ezarritako betekizunak betez gero (38/2003 Legea, azaroaren 17koa).

5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epea

Deialdi honetan onuradun gertatzen diren erakundeek laguntza eskatu ondoren gauzatu beharko dituzte jardunak, eta 2017ko maiatzaren 31 baino lehen amaitu.

6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Dirulaguntzaren ehunekoa gastuen aurrekontu onartuaren ehuneko 100 arte izango da, eskatzaile bakoitzeko 120.000,00 euro izango delarik muga.

7. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Dirulaguntza hauekin batera beste batzuk ere jaso ahal izango dira, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emanik, baldin eta xede eta helburu bera izanik badira eta dirulaguntzak ez badu gainditzen diruz laguntzen den jardueraren kostua. Jasotako dirulaguntzek batera kostu hori gainditzen badute, gehiagozko zenbateko hori bateraezina dela joko da, eta murriztu egingo da eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa.

8. artikulua. Prozedura bideratzeko organo eskudunak

8.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

8.2. Balorazio Batzordea honela eratuta egongo da:

– Batzordeburua: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria edo berak eskuordetzen duen pertsona.

– Batzordekidea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren burua edo berak eskuordetzen duen pertsona.

– Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

9. artikulua. Eskakerak aurkezteko epea eta modua

9.1. Eskabideak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz), edo itundutako udalen erregistro orokorretan, eta Enplegu,

Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari zuzendu behar zaizkio (Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritza), ezertan eragotzi gabe 30/1992 Lege azaroaren 26koak 38.4 artikuluan ezarritakoa.

9.2. Eskaerak aurkezteko 20 egun naturaleko epea egongo da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

9.3. Ebazpen honetan araututako laguntzen eskaera egitean agiri hauek aurkeztu behar dira:

– Laguntzen deialdian sartzeko eskaera.

– Paragrafo hauek jasoko dituen adierazpena:

– Udalerrak eskaera egiazkoa dela baieztatzeko behar diren egiaztagiri guztiak aurkeztuko dituela, eta Arabako Foru Aldundiak, Lanbidek, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Kontroleko Bulegoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Kontuen Epaitegiak eskatuko dizkion argibide osagarriak emango dituela.

– udalerrak bere gain hartzen dituela 38/2003 legearen 14. artikuluan (38/2003 Legea, Dirulaguntzen Orokorra) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak.

– Dirulaguntza enplegu planeko zein jardunetarako eskatzen den, haien azalpena, eta jardun bakoitzaren aurrekontu xehakaturia.

– Udalerrak eskatzaileak enpresa bat edo kanpoko entitate bat kontratatzen badu enplegu plana koordinatzeko edo hari buruzko aholkularitza tekniko emateko, gauzatu beharreko kontrataziorako lizitazio prozesuaren gaineko informazioa. Ez da eman behar informazio hori kanpoko enpresa horrek eman beharreko zerbitzuek ez badute gaingiditzen kontratu txikietarako ezarritako mugak (18.000,00 euro), eta, kasu horretan, beharrezkoa izango da lan horiek egingo dituen kanpoko enpresak edo entitateak aurkeztutako eskaintzaren fotokopia bat aurkeztea.

– Proiektua gauzatzeko kontratatu beharreko langileen kostuak xehakaturik, hala balegokio.

10. artikulua. Proiektuak hautatzeko eta balioesteko irizpideak

10.1. Aurkeztutako jarduerak, oro har, ondoren adierazten diren irizpide eta puntuazioen arabera balioetsiko dira:

a) Dena delako jardunak zenbat laguntzen duen parte hartzaileen enplegarritasuna hobetzen (20 puntu).

Hein handi batean	15-20 puntu
Hainbestean	10-15 puntu
Hein txikian	0-10 puntu

b) Enplegu planak irauten duen artean langabetuak kontratatzea (20 puntu).

4 langabetu edo gehiago kontratatzea	20 puntu
3 langabetu kontratatzea	15 puntu
2 langabetu kontratatzea	10 puntu
Langabetu 1 kontratatzea	5 puntu
Kontrataziorik egin ezean	0 puntu

b) Aurkeztutako eskaeraren definizio eta kalitate maila eta edukia, eta hura aztertze beharrezkoak diren agiri guztiak hasieratik bertatik aurkeztu izana (20 puntu).

Eskaera aurkezteko unean eskaera osorik egon da, eta proiektuaren zehaztasun eta definizio maila handia izan da.	20 puntu
Eskaera aurkezteko unean eskaera osorik egon da, eta proiektuaren zehaztasun eta definizio maila ertaina izan da.	15 puntu
Eskaera aurkezteko unean eskaera ez da osorik egon, baina geroago osatu egin da, eta proiektuaren zehaztasun eta definizio maila handia izan da.	10 puntu
Aurkeztutako gainerako eskaerak	0 puntu

c) Udalerrian erregistratutako langabezia indizea (20 puntu).

Arabakoa batez bestekoa baino 8 puntu edo gehiago	20 puntu
Arabakoa batez bestekoa baino 5 eta 7,9 puntu bitartean gehiago	15 puntu
Arabakoa batez bestekoa baino 2 eta 4,9 puntu bitartean gehiago	10 puntu
Arabakoa batez bestekoa baino 2 puntu baino gutxiago	5 puntu

d) Enplegu planak zenbatean laguntzen duen udalerraren ingurumen egoera hobetzen (20 puntu).

Hein handi batean	15-20 puntu
Hainbestean	10-15 puntu
Hein txikian	0-10 puntu

10.2. Dirulaguntza emango zaien erakundeak zehaztu eta haien arteko azken hautaketa egiteko, eta bakoitzari emango zaion dirulaguntza zenbatekoa izango den zehazteko, Diputatuaren Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren 6. artikuluan zehaztutakoari jarraituko zaio.

11. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epea

11.1. Organo eskudunak, Balioespen Batzordearen proposamenez, bidezkoa deritzon ebazpena onartuko du. Ebazteko epea Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko da.

11.2. Ebazpenak gutun ziurtatuaren bidez jakinaraziko dira. Edonola ere, Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkideari buruzko Legearen 59. artikulua ezarritakoaren arabera jokatu da (Lege horri 4/1999 Lege urtarrilaren 13koak emandako idazkeraren arabera).

11.3 Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio bidea, eta, beraren aurka, bat etorri 30/1992 Legearen 116. artikulua ezarritakoarekin (azaroaren 26koa, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkideari buruzkoa), aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio, hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

12. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak

Dirulaguntzaren xedearekin zerikusia duten komunikazio, publizitate eta zabalkunde egintza guztiak, baita edozein ekitaldi publiko nahiz pribatu, aurkezpen edo amaiera ekitaldi eta antzekoen antolaketa ere, alde aurretik Arabako Foru Aldundiarekin adostu beharko dira,

bere irudi korporatiboaren inguruan berak ezartzen dituen jarraibideei jarraituko zaie, eta bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira, herritarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea modu eraginkorrean bermatuz.

13. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa eta ordainketa

Dirulaguntza honela ordainduko da:

– Lehenbiziko ordainketa, dirulaguntzaren ehuneko 80, esleitzeko ebazpena onartzean, justifikatu beharreko aurrerakin gisa.

– Bigarren ordainketa, gainerako ehuneko 20a, behin udalerrri onuradunak aurkeztu duenean idazki bat 2016ko abenduaren 1era arte gauzatutako jardunen berri emanaz. Idazki hau 2016ko abenduaren 16a baino lehen aurkeztu beharko da, eta, berarekin batera, gauzatzen ari diren ekimenen eta/edo planen informazioa aurkeztu beharko da, bai eta parte hartzen duten pertsona langabetuen datuak ere, sexuen arabera bereizita.

Emandako aurrerakinak justifikatzeko, onuradunak azken memoria bat aurkeztu beharko du, 2017ko ekainaren 30a baino lehen (egun hori barne), honako informazio honekin:

– Txosten bat azaltzeko eta baloratzeko finantzatutako enplegu ekimenen eta/edo planen gauzatzea eta lortutako emaitzak, langabetuen kontratazioari buruzko datuak barne (kontratu mota, lanaldia, iraupena...).

– Udalaren enplegu ekimen eta/edo planen gauzatzean parte hartu duten langabetuei buruzko datuak: adina, lehenago zenbat denboran egon den langabezia eta haren lan egoera eguneratua, sexuka bereiziz.

– Diruz lagundutako jardueren gastuen zerrenda sailkatua, datu hauek emanaz bakoitzari buruz: entitate hartzekoduna, agiria, zenbatekoa eta jaulkipen data; oro bat adierazi behar da diruz lagundutako jarduerekin lotura duten bestelako dirulaguntzarik ere jaso ote den..

– Fakturen edo merkataritzako trafiko juridikoan frogatutako balio parekoa edo administrazio eraginkortasuna dutenen jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatutakoak, aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendari gehituak.

– Hala balegokio, enplegu plana koordinatzeko edo hari buruzko aholkularitza teknikoak emateko enpresa edo kanpoko entitate bat kontratatutako lizitazio prozesuaren gaineko informazioa, lizitazioa aurkeztutako eskaintzen kopia ere aurkeztuz.

– Zerikusia duten langileen nominen kopia jatorrizko edo konpultsatutakoak.

– Kotizazioen likidazio errezepto edo TC1 eredu eta langileen (izen) zerrenda edo TC2 eredu Gizarte Segurantzaren aplikazioaren bidez sortutakoak, edo haien kopia, nahiz eta konpultsatutakoak gabea izan, parte hartu duten langileei buruzkoak.

– Fakturen, nominen eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketen justifikagiriak.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e eta Ef4ktur motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua. Sinadura elektronikoak duen beste edozein agiri aurkeztekoan, 11/2007 Legearen @firma plataformaren bidez egindako ziurtagiriak onartuko dira (http://www.dnielectronico.es/seccion_aapp/rel_autoridades.html), bat etorritik administrazio elektronikoaren esparruan elkarrengarritasun eskema nazionalarekin, zeina 4/2010 Errege Dekretu urtarrilaren 8koak arautzen baitu.

Ordainagirien, nominen eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketen justifikagiriak formatu hauetan aurkeztu ahal izango dira:

– Ordainketako P kontabilitate agiriak.

– Jatorrizko banku ziurtagiria, izenpetuta edota bankuaren zigilua jarrita, datu hauek zehazten dituenak: ordaintzailea, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren erakunde onuraduna.

- Transferentzia telematikoen aginduak, ordainketa edo transferentzia egiten duen bankuaren zigilua daramatenak.
- Posta arruntez jasotako banku laburpenak.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua daramatenak.
- Libretetako edo kontu korranteetako mugimenduen kopia konpultsatua.
- Diruz lagundutako jarduna zehazten duten erosketa edo zerbitzuen tiketak edo ordainagiriak, ordaindu beharreko kopurua ordaindu dela frogatzen dutenak.
- Jatorrizko ziurtagiria, izenpetuta eta/edo fakturaren jaulkitzailearen zigilua jarrita, datu hauek jasotzen dituen: fakturaren zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa eguna (baldin eta ordainketa esku dirutan egin bada, 2.500,00 euro baino gehiagokoa ez bada, eta 7/2012 Legea urriaren 29koaren 7. artikuluan ezarritakoa betetzen badu).

Nominak ordaindu izanaren justifikazioa agiri multzokatuaren bidez egin bada eta han ezin bada egiaztatu parte hartu duten langileetako bakoitzari ordaindutako zenbatekoa, onuradunaren idazkia aurkeztu beharko da harekin batera, adieraziz langile bakoitzak jasotako zenbateko garbia eta zenbateko hori dagokion sorta igorriaren kontura ordaindu dela.

Dirulaguntza esleitu osoa edo haren zati bat justifikatu ezean, diru zenbatekoa eta dagozkion interesak itzultzeko eskatuko da.

Urriaren 29ko 7/2012 Legearen 7. artikuluan xedatutakoari jarraituz, ezin izango dira esku dirutan ordaindu 2.500,00 euro edo hortik gorako edo atzerriko dirutan zenbateko hori edo gehiago egiten duten eragiketak.

Onargarria izango da diruz laguntzekoak diren kontzeptuetan eta haien zenbatekoetan aldaketak egitea, nahiz eta diruz lagundutako kontzeptuetakoren bat gauzatu gabe geratu izan, baina beti ere diruz laguntzeko aurrekontu hasieran onartua dela muga. Desbideratze horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren oniritzia beharko dute, salbu eta aldaketak funtsezkoak badira; aldaketak funtsezkoak badira, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren oniritzia beharko da.

14. artikulua. Garapena

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio ebazpen hau behar bezala garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezkoa den xedapen oro eman dezan.

15. artikulua. Azken klausula

Foru agindu honetan ezarritako prozedura Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorretan ezarritakoaren mendean dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mendean ere: 3/1997 Foru Araua, otsailaren 7koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentzia; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzen orokorra; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, onartzen duena Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua (38/2003 Legea, azaroaren 27koa), eta horrez gero dirulaguntzei buruz emandako gainerako xedapenak.